

Marmari Leizako aldizkaria

21. zenbakia / 2010eko abendua

-Jeiki
abesbatza
eta kantu
eskola

-Argazki
galeria: Juan
Luis Artola

-Indarkeria
eta iratu
txarrak

-eta gehiago...

Leitza: hitzak eta irudiak



zenbaki honetan:



3. or. Aurkezpena

4. or. Leitza sarean

5. or. Nola aldatzen diren gauzak

6-7. or. Hitzokei II

8-13. or. Jeiki abesbatza eta kantu eskola

14-15. or. Argazki galeria: Juan Luis Artola

16. or. Negua ate joka

17-21. or. Indarkeria eta tratu txarrak

22-23. or. Hizkuntza paisaia

24-25. or. Gure hizkuntzaren izenaz

26-27. or. Euskal mitologiako hitz bitxi bat

28. or. Eta zuk, zer diozu?



Leitza: hitzak eta irudiak

Marmari aldizkariaren 21. zenbakia duzu esku artean. Honen ezkerreko orrialdean duzun aurkibidea irakurri baduzu, ohartuko zinen oso gai desberdinak landu ditugula oraingotan, eta, zehazki, nahikoa gordina den gaia ere ekarri dugula zenbaki honetara.

Sarritan esan dugu Marmari aldizkariaren bitartez herriko errealtatea hobeki ezagutzen saiatzen garela, euskarari eta kulturari arreta berezia jarritz, baina beselako alderdi batzuk ere erakutsiz.

Bada, 21. zenbaki honetan tratu txarren eta indarkeriaren inguruko lantxo bat jaso dugu. Izan ere, gustuko ez dugun arren, hori ere gure errealtatea da, askotan behar baino ezkutuagoa. Nahiago izaten dugu herriko bizitzan aurkitu genitzakeen alderdi positiboak eta onuragarriak

jaso eta landu, baina ez zaigu iruditzen tarteka gordinagoak eta krudelagoak diren batzuk saihestu behar direnik. Hor duzu gai hori, beraz, informazioa eman eta gogoeta eragin nahi duen erreportaje batean jasoa.

Horretaz gain, jakina, beste lan batzuk ere badituzu. Esate baterako, herriko hainbat kantuzale elkartzen dituen Jeiki abesbatzaren ingurukoa, goraxeago aipatu dugun kultur arloan kokatua.

Edota, ohi den bezala, hizkuntzaren ingurukoak. Hitzen jatorriaz ariko gara, esate baterako, “euskara” hitza bera nondik ote datorren aztertuz. Inguratzen gaituen paisaian hizkuntzak zer toki duen ere begiratu dugu, eta, bestalde, euskararekin edo euskarazko hitzekin jostatzen ariko gara, Hitzokei izeneko erreportajearen.

Eta hizkuntzarekin ari garela, herritar batek bidalitako kolaborazioa ere sartu dugu aldizkari honetan. Aurreko zenbakian gure gustuko hitzez aritu ginen, eta gogoetatxo horiek eraginda iritsi zaigu esku artera artikulutxo hori.

Esan beharrik ez dago, hitz ugari biltzen du marmarik, baina baita irudiak ere. Hitzaz baliatzen gara aldizkarian partekatatu nahi ditugun ideiak azaltzeko, baina irudiak ere oso lagungarri gertatzen zaizkigu. Atal finko bihurtu zaigu, besteak beste, Leitza herritar baten begietan erakusten digun hori. Oraingotan Jose Luis Artolaren begia —edo kamera— erabili dugu Leitza begiratu emateko.

Horiek, beraz, eta baita beste kontu batzuk ere, 21. zenbaki honetan aurkituko dituzunak. On egin.

Leitza sarean



Ez dago azaldu beharrik gaur egun Internetak gure eguneroko bizitzan hartu duen tokia eta pisua. Askotan badirudi sarean ez dagoena, besterik gabe, ez dela. Gauzak ez dira hain erabateko, zorionez, baina egia da arrazoi askorengatik komenigarria edo garrantzitsua dela Interneten egotea.

Leitza, gure herria, sarean egon badago, mila modutan egon ere. Ditzosozko google bilatzailean Leitza jarri eta ager-

tuko dira makina bat orri Leitzari buruz zer edo zer diotenak. Oraintsu arte ez dugu izan, ordea, herriaren webgune “ofizialik”. Normalean gune horiek udalek sortzen dituzte, eta, gurean ere, Leitzakoak ere sarean egoteko erabakia hartu du.

Interneten sartuz gero, www.leitza.net jarri, eta Leitzako Udalaren gunea aurkituko duzue. Sortu berria da, eta oraindik ere garapena behar du. Alegia, aurrerantzean gehiago lantzeko asmoa ere bada.

Badituzue bertan, nolanahi ere, herriaren inguruko hainbat jakingarri, eta horren berri eman nahi genuen, nahi izanez gero begiratu bat emateko.

Webgunearen egitura, irekitako lehendabiziko leihoan ikus dezakezen moduan, goiko irudikoa da.

Ez dugu hemen barruko edukiaren berri emanen. Besterik gabe, bertan sartu eta pixka bat lardaxkatzen ibiltzeko gonbita egiten dizuegu, beti izanen da eta zer edo zer ikasteko modua.





Nola aldatzen diren gauzak

Begien bistan dituzun argazki horietan Leitza inguru jakin batek izan duen aldaketa ikus dezakezu. Gaur egun kiroldegi inguruak duen itxura ongi aski ezagutzen dugu, eta osotara ohitu gara. Duela urte batzuk, ordea, oso bestelakoa zen. Kiroldegia eraiki baino lehenago inguru horrek zuen itxura oso desberdina zen. Adibide edo lagin txiki bat besterik ez da.

Oroitzen al zinen? Gogoan al duzu nolakoa zen ingurua? Eta herriko beste hainbat inguruk zuten itxura? Izan ere, herriko auzoak, kaleak eta etxeak aldatuz doaz, eta, askotan, ematen du Leitza beti gaur den bezalakoa izan dela. “Ahaztu” egiten zaigu, zenbaitetan, lehen nolakoa zen.

Normala da, jakina. Egunero-egunero ikusten duzun horretara ohitu beharra daukazu, eta ohitu egiten zara. Horrela gertatzen da bizitzako beste hainbat alderditan eta egoeratan ere. Baina komeni da tarteka gauzak lehen nola ziren begiratzea eta ikustea, eta gauzak aldatzen doazela ikustea.



II EXHON TII

marmariren 19. zenbakian *Hitzokei* izeneko atal bat osatu genuen. Interneteko gune batean aurkitutako hainbat hitz ekarri genizkizuen hona. Hitz berezi samarrak ziren, ordea, hainbat lagunen irudimenak eta umoreak sortutakoak baitziren.

Asmatutako hitz horiek ederki asko erakutsi ziguten hizkuntzak ere jostaketarako balio digula, sormena eta irudimena lantzeko. Eta umorez ere busti dezakegula gure sormen hori.

Hitzokei izeneko interneteko gune horretako hitz-zerrendak gizentzen jarraitzen du, eta 21. zenbaki honetan zerrenda horretatik hitzez hitz

hartutako beste ale batzuk ekarri nahi izan ditugu. Izan ere, hizkuntzarekiko eta euskararekiko jarrera positibo eta ludiko baten erakusgarri bikaina dira, eta euskaldunok ere behar dugu jarra horretatik pixka bat, gure ustez.

Hitz hauek irakurtzera eta hitz bakoitzaren atzean dagoen ideia eta jokoa aurkitzera eta das-tatzera animatzen zaitugu, baina, batez ere, zerrorek ere antzeko zerbait egiten saiatzera gon-bidatzen zaitugu. Eta inork hitzen bat asmatu eta erakutsi nahi badu, Hitzokei delako gunera bidal dezake. Hauxe duzue helbidea: <http://hitzokei.tximinia.net/>

Adobatu: Haragia PDF-ra pasatzea

Ahaldaketa: Ketamina kontsumitzea baimen-duta dagoen taberna edo lokala.

Ahatez ahate: Anatidoak era masibo eta basa-tian ehizatu beharrean, banan-banan biltzearen aldeko mugimendua.

Aitona: mila kiloko aitxitxa.

Ajenda: ajea zein egunetan izango dugun apun-tatzeko egutegi-liburua.

Alfernatioa: saloiko iraultzailea.

Altzairu: hiruren artean jaso behar den burdin astun mota bat.

Alupezia: pottor soiltasuna.

Amaia: beti bukaeran etortzen den laguna.

Amazona: aitak umeeekin utzi ondoren, amak el-kartzen diren basoa.

Anboto: alderdi politikoen mendi sakratua.



Anboto



Aitona



Aritztoles



Barretxiko

Andoain: herri honetan dirua ez da beharrezkoa, gauzak ordaindu gabe har daitezke.

Anzerbait jan: Europatik irten baino lehen mokadu bat hartzeko herrialde egoia.

Argaizki: gizona desenfokatua dagoen argazkia.

Aritztoles: filosofo euskalduna.

Arnesestuka: eskalatzaile seguiolaren estualdia.

Artzak: euskal self service hoberena.

Asma: gaixotasun imajinarioa.

Atxikia: Kilobyte gutxiko artxibo erantsia.

Aitzotitza: iraganeko esamoldea.

Auskalopitrekus: beti dudan dabilena.



Ajenda

Barretxiko: deskajonoa eta barre-algara konstanteak eragiten dituen perretxiko mota.

Batzarra: nerabeen bilera batean dagoen agure infiltratua.

Bazoka: arma merkatua.

Beharapenak: eta gora bihotzak! denok merkatalguneetara!

Bereziardua: familia honetako kideak ardoa kiantza bada soilik edaten dute.

Bertsorzista: bertso berldugarriak, ikarragarriak botatzen dituen bertsolaria. *via wazemank.*

Biharamona: 24 ordu barru familia izan behar duenaren ama.

Bizartea: bizardunen jendartea.



Bertsorzista

Butaka egin: zinean oso txarto pasa.

Dekadantzia: larunbat gauetan goizeko 5etatik aurrera diskoteketan egiten den dantza estiloa.

Disgustazio menua: txarto jan eta garesti ordaindu.

Dizkisugus: guk zuri goxoki batzuk eman...

E-postasia: e-mailuz, eliza katolikoaren kide izateari uko egitea.

Eduardo: euskal jatorria duen izena, erderaz Eduwine, Eduvino,...

Egibar: EAJ-ko gazteak joaten diren taberna.

Egohaizea: nork bere buruarengan soilik pentsatzeko joera.

Eskuminak: pilotak pilotariari.

Ez dok armairu: 1. Ikeako instrukzioak ez ulertzearen ondorioa 2. 60etan homosexualen onarpen publikoaren alde kanta-tu zuen taldea.

Ezineman: Copyright-a duten filmak.

Ezkirol: kirolak inoiz egiten ez duena, ezta grebarik ere.

Ezpagueti: gauzak ordaindu aurretik alde egiten duen italiarra.

Jeiki abesbatza eta kantu eskola

Euskaldunok abesteko zaletasun handia omen dugu. Hiru euskaldun elkartzen diren tokian ba omen dugu orfeoia, edo hala esaten zen behintzat. Nonahi eta noiznahi abesteko ohitura hori dezente aldatu dela ezin uka, eta ziur asko lehen baino askoz gutxiago abesten da gaur egun, baina bada kantuari eta abesteko grinari eusten dionik. Baita Leitzan ere, urrutira joan gabe.

Abesteko zaletasuna duenak aukera asko ditu, jakina: autoan, etxean, duxan, mendian... Horiek, askotan, bakarkako ariketa moduan egiten ditugu. Baina taldean abestea ere gauza ederra eta atsegina da, eta horretarako ere bada aukera Leitzan: Jeiki abesbatza, hain zuzen ere.

Urte, entsegu, emanaldi eta joan-etorri asko dago Jeiki abesbatzaren historian. 1974. urtean hasi eta gaur arte iraun duen taldea da, oraindik ere gogoz eta kementsu ari dena. Abesbatza hobekixeago ezagutzeko asmoz, haiengana jo eta haien berri jakiten saiatu gara. Eta, bidea batez, Leitzan martxan den kantu eskolaren inguruan ere galdetu diegu, kantugintzaren inguruko ereportaje hau osatzeko. Datozen lerrootan laburtu dizuegu haiek konatatutakoa, eta ondoren elkarriketatxo bat ere ekarri dugu, osagarri gisa.

TALDEAREN INGURUKO ZENBAIT ARGIBIDE

HISTORIA

Jeiki abesbatza 1974.ean sortu zen, aurretik desagertutako "Agrupación Coral de Leiza"ren ondorio bezala. Hasieran berrogeita bost abeslari ziren, eta uneren batean berrogeita hamabi izatera ere iritsi ziren. Hamar urte iraun zuen Jeikiren ibilbide "ofizialak". Ho-





rrek ez du esan nahi, ordea, Jeikiko kideek beren lana utzi zutenik, abesten jarraitu baitzuten bertako eta inguruko herrietan, batez ere hainbat eta hainbat elizkizun jantziz eta hornituz.

Historia laburra, baina trinko eta bizia. Emanaldi asko izan dira tartean, eta garrantzitsuenen artean Iruñeko Gaiarre antzokian egindako hiruak aipa litezke: aurrenekoan hamaseigarren mendeko polifonia abestu zuten; bigarrean Fernando Remachari eskainitako emanaldian parte hartu zuten; hirugarrenean Santa Zezilia orkestrarekin batera aritu ziren, Javier Bello Porturen zuzendaritzapean. Javier Bello zuzendariarekin, hain zuzen ere, abestu zuten Loiolako Baselizan, Azkue organista eta Gavilanes piano-jotzailearekin, Rossiniren Petit Messe 1982. urtean.

Aipatu beharreko beste emanaldi berezi batzuk hauek dira: Lizarrako "Semana medieval" delakoan egindakoa, Madrileko San Fermin elizakoa, Bilboko Arriaga antzokikoa, Kataluniako Mataró hiriko festetan egindakoa, Arabako Amurrio, Oiartzun, Pasaia, Mendaro...

ZUZENDARIA

Taldeko zuzendaria Pontxito Iurtia da gaur egun, eta hala izan da beti gainera, taldea bera sortu zenetik. Pontxito bera izan zen taldearen sortzailea. Musika munduan Donostiako Kontserbatorioan hasi zen, eta ondoren Iruñekoan egin zituen Kapera Maisuko ikasketak. Leitzako organista izan da hainbat urtez. Pontxito ez da bakarrik aritu, nolanahi ere, ondoan izan baititu bi laguntzaile garrantzitsu: Donostiako Miren Zabalbeaskoa lehendabiziko aldia, eta Elena Balanuta gaur egun, biak ere kantu-irakasleak.

LEHIAKETAK

Jeiki abesbatzak, bere historian zehar, zenbait lehiaketetan parte hartu zuen, ikasteko oso interesgarriak iruditzen zitzaizkiolako bere zuzendariari batez ere: "Ejea de los Caballeros"en (1979an) lehen saria jaso zuen. Bitan aurkeztu zen Tolosako abesbatzen lehiaketara (1981ean eta 1982an), eta bietan laugarren postua lortu zuten. 1983an Gales-ko Langoilen-en ospatzen den lehiaketan hartu zuen parte eta zortzigarren gelditu zen 36 koruren artean, baina behartutako polifoniako obran bigarren, Bulgariaren ondoren.

Musika-Kantu-Dantza
Jaialdia Leitzan
 Lesakako Banda
 Jeiki Abesbatza
 Aurrerako Dantzariak
 Leitzako Txistulariak
 Bertsolariak
 Aralar Musika Eskolako Akordeo-joleak
 Handi eta Handi partehartzaileak

Urriak 11, arratsaldeko 8etan, Leitzako plazan

K o n t z e r t u a
Jeiki Abesbatza
 Sinfonietta Academica
 Orkestra

Abenduak 23 Leitzako Elizan
 11:45etan

Programa:
 Gabon Kantak
 Misa: Prosa in 2. munda (K. 254 Mozart)

K o n t z e r t u a
Haendel
 Antifonas
Schubert
 Meza
Jeiki Abesbatza
 Sinfonietta Academica
 Orkestra

2010eko Apirilak 25 Leitzako Elizan 12tan

K o n t z e r t u a
Mozarten Requiem
Jeiki Abesbatza
 Sinfonietta Academica
 Orkestra

Abenduak 21 Leitzako Elizan 11:45etan

Solistak:
 Sopranos: Beatriz Lorente
 Mezzo: Elena Balanuta
 Tenorea: Iñigo Casali
 Bajua: Alfonso Echeverria

Zuzendariak:
 Orkestra: Abesbatza
 Caroline Florencio
 Cotlier Irurtia

KANTAK

Errepertorio zabala dauka Jeiki abesbatzak. Abesten dituen kantuen artean, ideia bat egin dezagun, XX. mende-koak hautatu ditugu. Honakoak dira:

Hator, hator mutil etxera (*Jesús Guridi*)
 Edurra mara mara (*Errusiako abestia*)
 Oi Bethleem (*A. Donostia*)
 Belenen sortu zaigu Jainkoa (*A. Donostia*)
 Bili bili bonbolo (*A. Donostia*)
 Haurtxo polita (*G. Olaizola*)
 Ituna (*Norberto Almandoz*)
 Agur Jaunak (*Arm. Olaizola*)
 Haur eder baten bila (*Arm: Ander*)
 Orra Mari Domingi (*Jose M^a Usandizaga*)
 Gabaren erdian (*F. Ibargutxi*)
 Hondarrabiko Olentzeroa (*Javi Busto*)
 Ave Maria (*Javi Busto*)
 Zutaz (*Javi Busto*)
 Sagastipean (*Javi Busto*)
 Gau ixila (*J. A. Huarte*)
 Urrundik (*A. Mitxelena*)
 Mesias sarritan (*B. de Ercilla*)
 Birjina maite (*Luis Arteaga*)
 O Tannenbaum (*Arm De Félix Zabala*)
 Ninna Nanna (*Brahms*)
 Nenia Pastorale (*Somma*)
 Gabon enborra (*Ion Oñatibia*)
 Amezkilla (*Jaroff*)
 Kuku (*Errusiar herrikoia*)
 Canción sueca (*Anonimoa*)
 An irish blessing (*Arm. James E. Moore*)
 God rest ye merry (*Tradizional, ingelesa*)
 Aita gurea (*A. Madina*)
 Oles ezkonberriak (*A. Madina*)
 Agure zaharra (*Lluis Llach*)
 Evocación marinera (*Gorge Domingo*)
 Egur hezearen kea (*Joakin Pildain*)
 Hegoak ebaki banizkio (*J.L.Franzesena*)
 Neure maitena (*I. Mocoroa*)
 Kantatzera noazu (*Koldo Pastor*)
 Ama begira zazu (*V. Zubizarreta*)
 Dantza dantza dantzari (*Ricardo Sabadie*)
 Dulce tiempo de primavera (*Carlos Etxeberria Alonso*)
 Els cant dels ocells (*Arreglo de F. Villa*)
 Éxodus (*Arm. Luis Aramburu*)
 Les choristes (*Bruno Coulais*)
 Yerusalaím (*Schindler's List*) (*Naomi Shemer*)
 Arrats gorri (*Angel Oliver Pina*)
 Soneto (*J.C. Múgica*)
 Cetro efímero (*J.I. Prieto*)
 San Tiburtzioari abestie (*Jesús Azpiroz*)
 Zure oinetan (*B. Lertxundi*)
 Old-time religión (*Negro espiritual*)
 Go down Moses (*Arm. Georges Aubanel*)



Ez atseginak? Langollendik bueltan, ez gara gogoratzen ongi, 16 edo 17 neskak aire egin zutenekoa, batzuek ezkondu behar zutelako, beste batzuek ikasketak atera, kanpora joan behar zutelako.... Orduan utzi genuen korua.

■ **Jeikik egin duen urtetako ibilbide horretan, etenaldirik edo gorabeherarik izan al da?**

Aurreko galdera horretan erantzuten den bezala, Galestikako bueltan hautsi zen taldea eta orain dela 7 urte hasi gara berriro.

■ **Abesbatza guztiak ez dira berdinak, eta denek ez dute lan bera egiten. Zer musika mota lantzen du Jeikik? Eta nola aukeratzen duzue abestu beharrekoa?**

Leitzakoak garenez, batez ere euskal musika. Honen ondoren, gehienbat klasikoa, eta Koruaren egitura kontuan hartuta, musika erromantikoa. Hori nolabait argitze-ko. Beste ikuspuntu batetik, musika mota guztiak, inongo markarik gabe.

Nola aukeratzen dugun abestu beharra? Ikasturte hasiera bakoitzean progra-

mazio bat egiten dugu. Urte guztirako ardatz bezala erabiliko dugun erreperitorioa eta kontzertu nagusia edo nagusien kantak aukeratuz, erreperitorioa markatuz, helburu nagusia eta besteak kontuan harturik, aurrekontu bat eginez, eta abar. Guzti hau zuzendaritza taldeak aztertzen du aurrenik eta lehendabiziko bileran koruaren aurrean agertzen du. Gero programa segitzen saiatzen gara.

Hala eta guztiz ere, gerta daiteke programazioa goitik behera aldatu beharra izatea. Batez ere uste ez genuen nonbaite-rik deitu gaituztelako zerbait konkretua eskatuz. Ez da berdin, adibidez, Gaiarre antzokian, ezkontza batean, edo honelako herriko kiroldegi batean abestea; ez erreperitorio aldetik eta ezta giroari dagokio-nez ere. Hori emanaldi bakoitzak markatzen digu.

■ **Zer behar da Jeikiko kide izateko?**

Ea ordenan agertzen dugun: afizioa, alde aldeko belarria, nolabaiteko ahotsa. Hori batez ere. Baina kontuz, Jeikikoa izateko. Agian ez da hori izango Iruñeko koru ba-

tean sartzeko eskatuko lizuketena edota dizuena; eska diezazukete, adibidez, solfeoa, ahots ona, aurretik beste koruren ba-tean aritu izana, kantua landua edukitzea, eta abar. Abiapuntua ez litzateke bada berdina izanena.

■ **Eta entsegu bat, esate baterako, nolakoa izaten da?**

Aurrena ahotsak berotzeko ariketak egi-ten hasten gara edo hasi beharko genuke. Egia esan, kantu ematen dugunetik, hau kantu eskolarako uzten dugu gehienetan, beti ez baitugu betarik izaten. Ondoren, daramagun programazioan sartzen den erreperitorioarekin hasten gara, batzuetan kordaka, beste batzuetan ahots guztiak batean, batzuetan solfeatuz, beste batzue-tan kantu aldetik (emisioa, bokalizazioa...) landuz.

■ **Entseguaz gainera norberak landu behar al du ahotsa eta kantua?**

Ahotsa lantzeko Iruñetik etortzen da aste-ro irakasle bat. Honek banaka 13 edo 14 abeslari hartzen ditu. Beste ale batzuek



Iruñean bertan ikaste dute. Eta batzuetan irakasle honek kordaka egiten du lan. Noizbehinka koru guztia entzutera ekartzen dugu, bertan esku osoa sar dezan iruditzen zaionean.

■ Nola dago antolatuta abesbatza: ahotsen banaketa...?

Emakume ahotsak soprano, mezzo eta kontraltotan sailkatzen dira, koru guztietan bezala. Gizonezkoenak berriz tenore, baritono eta baxutan. Sailkapen hau zuzendariak egiten du bakoitzaren ahots mota entzunez eta aztertuz. Aurreneko momentutik normalean, beste batzuetan egun batzuk pasa ondoren.

■ Abeslariak garrantzitsuak dira abesbatza batean, zalantzarik gabe, baina baita entzuleak ere. Zer jende joaten da Jeikiren kontzertuak entzutera? Eta non egingen dituzue kontzertuak?

Entzulea erabat alda daiteke kontzertu batetik bestera. Eta ez bakarrik kanpora joaten garenean, baizik eta Leitzan bertan ere. Ez da jende berdina joanen elizkizun

batean, herriko zinean, udaletxeko areto nagusian edo kiroldegian abesten dugunean, nolabait esateko. Helburu desberdina baita kasu bakoitzean. Eta helburuarekin batean, baita errepertorioa ere, zentzuzko den bezala.

Kanpora ateratzen garenean, aurretik ahal den informazioa lortzen saiatzen gara, leku horretako ezaugarriak jakiteko, eta horren ariora prestatzen dugu erreperitorioa. Aldi berean, baietza emateko, galdetzen dugu aretotan abestuko dugun, zer nolako sonoritatea duen, zein izan den aurretik pasatako taldea, eta abar.

Kontzertuak areto desberdinetan egin izan ditugu: elizatan, kultur etxetan, antzokitan, zinetan...

Leitzan kontzertua jende askorentzako denean, normalean elizan ematen dugu, sonoritate ona duelako. Kiroldegian ere eman izan dugu baina erresonantzia handiegia dauka eta ez dago horretarako egokituia. Zinean, berriz, zer esanik ez, saiatu garen guztietan ezinezko izan zaigu; lastima da halako leku politean dagoenez, baina paretek irensten dute ahots guztia.

■ Zer bilatzen du Jeikira abestera etortzen den jendeak?

Jeiki aurretik beste koru bat izan genuen, Agrupación Coral de Leiza izenekoa. Hura sortu genuen orduko gazteok dibertitzeagatik. Aktibitate handia izan zuen, toki askotara joan ginen, batez ere orduan guretzat hain bertan zegoen eta, aldi berean, hain ezezaguna egiten zitzaigun Iparraldera. Lau urte iraun zuen. Esan dugun bezala, dibertsio bat zen. Gaur egun norberari galdetu beharko litzaioke zergatik etortzen den. Erantzun oso desberdinak entzungo genituzke. Baina abeslari gehientsuenak afizioagatik sartzen direla uste dugu.

>>>> KANTU ESKOLA >>>>>>>>>>

■ Zer da?

Batez ere kantatzen ikasteko ematen diren klaseak. Ez da berdin kantatzen ikastea edo kantak ikastea.

Kantu eskolan ahotsa ongi kokatzen, ongi bidaltzen, ongi bideratzen ikasten da. Guztiok ohartu gara badela jendea ahotsa sudurretik bidaltzen duena, beste batzuek, berriz, laringea gehiegi sartuz, “gangotsuak”, beste batzuek aire gehiegi botako dute hitz egiterakoan, bada poli-poren bat ere eduki dezakeena bera kon-turatu gabe izan arren. Guzti hori zuzen-du eta “sendatzen” da Kantu Eskolan.

Oso jende gutxi da berez ongi abesten duena, normalean gehientsuenok gaizki bideratzen dugu gure ahotsa, nahiz eta goian jarri ditugun adibideak oso nabarmenak izan.

Opera abesten dutenek, beren bizitza osoan egin behar izaten dituzte kantu ariketak ahotsa ongi kokatu eta bidaltzeko. Beraien lana da. Denok ezagutzen dugu abeslari famaturen bat, Opera kantatuz bizi dena. Abeslari horrek, edozein delarik, 5 edo 6 ordu pasako ditu bere ahotserako ariketetan bere eguneroko emanaldiaz gainera.

■ Nor da irakaslea?

Elena Balanuta, moldaviarra, nahiz eta Iruñean bizi den.

■ Astean zenbat ordu?

Koruarentzako 3 ordu astean. Korutik at, ordu erdia bakoitzarentzat. Gutxi da, baina horixe da daukaguna. Beste bazterretan ere ez da askoz gehiago izaten.

■ Nor joaten da?

Erantzun bikoitza eskatzen didazu: Koruaren 3 ordu horietan, koruko abeslariak.

Baina koruarentzako orduetatik kanpo, matrikulatu nahi duen guztia. Asteazkenetan etortzen da. Norbaitek matrikulatzeko asmorik balu, nahikoa du Joxemari Azpirotzekin hitz egitea. Hark jakinaraziko dizkio baldintzak, ordaindu beharrak eta abar.

Guzti hau argitzea garrantzitsua iruditzen zaigu: kantu ikasketak ez daude Jeiki koralarekin nahitaez loturik; batek har ditzake kantu klaseak korukoa izan gabe eta, alderantziz, sar daiteke koruan kantu klaserik nahi ez duena ere.

Leitza Juan Luis Artolaren begietan


Urruti samarrera joaten gara maiz paisaia ederrak ikustera eta, zinez, badira bidaia merezi dutenak. Baina Leitza bertan ere, zalantzarik gabe, ingurura begiratuz ederki goza dezakegu. Juan Luis Artolaren begirada jaso dugu Marmariren zenbaki honetan, Leitzak ematen dizkigun irudi ederrez gozatzeko. Honatx argazkiak:




Uitziko gaina




Leitzelarrea




Añaldeko bidea



Armiarma




Intsektua



Onttoak



Aritz



Plazaolako trenbidea

Negua ate joka

Ate joka dugu negua, eta ate joka aro horretan ospatu ohi diren zenbait festa, erritual edo ospakizun. Denboran hurbilen ditugunak aipatuko ditugu hemen, Udaren webgunetik (www.leitza.net) hartutako azalpenak hitzez hitz hona ekarrita. Honatx:

ABENDUAK 24. ORANTZARO EGUNA, GABON GAUA.

Gabon gauean, herriko zenbait atari, geroz eta gehiago, Orantzaro bertan dela argitzen dira: etxeetan Orantzaroak egin eta balakoietan, leihoetan, ate-ondoetan jartzen dituzte 24ko goizerako.

“Panpina” jarritz, edo zerbait irudikatuz... etxeetako Orantzaro desberdinak ikusiz herrian barrena ibilbidetxoak egiteko aitzakia polita da. Parte-hartzaileen artean lehiaketa eta zozketa egiten dira.

Iluntzean, berriz, Orantzaroari ongi etorria egiten zaio: menditik kablean iristen da herrira eta gero plazan ongi etorria eginda, kalejira egiten da. 2007az geroztik, Maimur herriko lamia mitikoak egiten dio bisita Orantzarori plazan egiten den ekitaldian. Ekitaldi honetan ere, gabon gauak izatez duen garrantziaz gain, data honetan ematen den solstizio aldaketa ere ospatzen da.

ILBELTZAK 4. ZINTZARRI JOTZEA.

Gauerdia inguruan jendea plazan biltzen da, zintzarri banarekin, eta herrian barrena (auzo guztietan zehar, zaharrak eta berriak) horiek joaz ibiltzen da, oinez, pausoan. Aldian behin, soinua handiagoa izan dadin edo, lasterraldiak ere egiten dira, aldapa beherak baliatuz.

Soinua ateratzeko jendeak zintzarriak eramaten ditu, eta baita joaleak, kulunkak, karrakak, kanpalinak, eta kaxkabelak ere.

Gaur egun biharamuneko kabalkadaren oharpen gisako ekitaldi-ekintza modura jotzen da, alegia, hiru errege magoak etorri aurreko iragarpena, umeek egun horietan bizi duten zirrara areagotuz: zintzarri soinuak aditu, “lo hori egin”, eta hurrengo egunean, erregeak etorriko dira.

Baina ohitura hau kabalkadak eta opariak egiten eta banatzen hasi baino askoz ere lehenagokoa da. Jada neguko garai hotz eta ilunenak igaroak izaki, abenduaren 21ean neguko solstizioa pasa eta eguna luzatzen hasia baitago ilbeltzeko tenore honetan, “lurrari esnatzen laguntzeko”, alegia, udaberri-rako prestatzen hasteko, jotzen omen zituzten zintzarriak eta joaleak herritarrek. Adituen ustez gure herriko ohitura honek zuzeneko lotura du Iturengo eta Zubietako joal-dunenarekin, esanahiari dagokionez, tenore bertsukoak baitira.

Aipatzekoa da ekitaldi honek hurrengo goizean jarraipena izaten duela. Ilbeltzaren 5eko eguerdi artean umeak ateratzen dira, mordoskaka, auzoan barrena zintzarriak jotzera. Baina ohitura hau galtzen ari ote den dirudi, azken urteotan oso ume gutxi parte hartzen baitu.

ILBELTZAK 5: KABALKADA:

Ohitura honek, 40 bat urte ditu gure herrian. Gainerako lekuetan bezala, Hiru Errege Magoen etorrera antzezten da, su-argi, kantua, musika eta Jaiotzarekin.

ILBELTZEKO 4. IGANDETIK HASI ETA ASTELEHENA ETA ASTEARTEA: IHOTEK:

Leku gehienetan ez bezala, data hauetan ospatzen dira ihoteak gurean. Debekatuak egon ziren garai horietan ere ez zitzaion egi-teari utzi, “pesta tikiak” zirela argudiatuta.

Azken 20 urteetan galdua zegoen arren, 2008an berreskuratzeko eginahala egin

den ezaugarri propioa dute gure herriko ihoteek: Zapelak. Alanbrez eginiko oinarri ahalik eta altuenak dira, paper-xingola koloretsuak josita. Putre, oilar... edo bestelakoren lumentz apaindutako kukurutxo tan-kerako zapela erraldoi horiek buru gainean hartu -aurpegia estalita, noski- eta soinean soineko luzea jantzita koadrila ateratzen zen. Esan bezala 2008an ohitura berreskuratu da.

Ezaugarri berezi horretaz gain, badago gure ihoteetan inguruko herrietan ere komuna den beste ohitura bat, gero eta errotuagoa: baserrietara eskera joatea. Astelehen goizean Gorritztaran, Arkiskil, Erreka eta Sakulu baserri-auzoetara eskera ateratzen da: baserriz baserri, bakoitzean etxe-koek prestatuta izaten duten mahai betekoa jan-edanez ase eta musikarien doinu-dantzaldi batzuk egin ondoren, ibilian jarraitzen dute. Lau taldeetan banatuta ia 400 iza-tera ere iritsi dira. Oso errotua dago ohitura hau. Asteartean, herriko bosgarren baserri-auzora egiten da eskea, Erasotera. Baina, nabarmena denez, bezperan gailurra jota izaten baita jendea ere, askoz ere jende gutxiagok hartzen du parte. Horrek berak, baserritarrekin kartetan egiteko beta ere ematen die parte-hartzaileei.

Kontuak kontu, badira ohitura berriak ere tartean. Hala, 1999.az geroztik, igandeko eguna ere oso ikusgarria izaten da, herriko koadrilek gurdiak prestatu eta kalejira egiten baita eguerdi artean. Herri bazkaria egin eta festak bakoitzaren ariora jarraitzen du. Asteartean ere koadrilek afariak egiten dituzte eta gaueko festa oso berezia izaten da, mariatxi, pantera arrosa, apaiz eta sorginen tartean ibil baitaiteke, astronautaz atxauretuta esaterako.

Ume, gazte, heldu nahiz adineko, ihoteak oso parte-hartzaileak dira gurean.



Indarkeria

eta tratu txarrak



Telebista ikusi, egunkariak irakurri edo irratia entzuteko ohitura baldin baduzu, gutxi bada ere, ongi aski jakinen duzu indarkeria eta tratu txarrak eguneroko ogia direla, batez ere emakumeen aurkako indarkeria. Errealitate gordin da, latza, erabat eta zeharo gainditu eta desagertu beharko litzatekeena.

Indarkeria hori izan badela badakigu denok, baina badira gai horren inguruan agian hain bistakoak ez diren alderdi batzuk, hona ekarri nahi izan ditugunak: alde batetik, indarkeria ez dela askotan aipatzen diren emakumeen aurkako eraso fisiko horietara mugatzen; hori baino askoz gehiago da, eta beste alderdi eta forma asko ditu: indarkeria emozionala, eko-

nomikoa... Eta, beste alde batetik, indarkeria hori ez da soilik berrietan agertzen den eta ezagun bihurtzen den hori: dirudiena baino zabalduagoa dago, eta ez dago gure herritik atera beharrik horren berri izateko. Errealitate latza da, baina gurea ere bada, guregandik hurbil ere badaude errealitate hori nozitzen duten pertsonak.

Erreportaje honetan, atsegina ez baina saihestezina den gaia landuko dugu. Gure herria hobeki ezagutzeko ahalegina egiten dugu askotan Marmari aldizkaritik, eta gai hau lantzeak ere horretan lagunduko duela espero dugu, hau ere gure egia-
ren zati bat baita. Gizarte Zerbitzuak emandako informazioarekin osatuko du-

gu erreportajearen lehendabiziko zatia, eta gai hau lantzen duen Bilgune Feministari elkarrizketa egingen diogu ondoren.

ZER DA INDARKERIA?

Oso definizio zehatza ematera irits gaitzkeen arren, agian hori bezain garrantzitsua da testuingurua aipatzea. Emakumeen aurkako indarkeria ez zen egun jakin batean hasi. Betidanik hor izan den fenomeno da, mundu osoan gertatu eta gertatzen dena. Edozein kultura, adin, gaitasun ekonomiko eta jakintza mailako emakumeak nozitu dezake, eta zenbait konturekin aisa lotu daiteke: erlijio eta sistema sozialen inposatzea, sistema patriarkala...



Gizarte desorekatua da gurea, goitik beherako harreman hierarkikoetan oinarritua, baita sexuaren arabera ere. Eta harreman hierarkiko horietan emakumea are egoera okerragoan egon ohi da. Indarkeria, besteak beste, desoreka horri eusteko tresna bat da. Ez da momentuko kontua edo auzia. Eta mendeen eta urteen joan-etorrian aldaketa eta hobekuntza batzuk gertatu direla bistakoa den arren, hori bezain bistakoa da gaur egun ere harreman desorekatuak eta hierarkikoak mantentzen direla, eta indarkeria horren isla eta horretarako tresna ere badela.

Sarreran esan dugun moduan, emakumeen aurkako indarkeriaz ari garenean ez gara soilik tratatu txar eta eraso fisikoaz ari. Kolpea, ukabilkada, ostikoa, jipoia... baino gehiago da indarkeria. Indarkeria da, esaterako, pertsonen arteko harremanetan batek boterea erabiltzea bestearen gainetik inposatzeko. Botere hori indar fisikoa da askotan, baina bestelakoa da beste askotan: botere ekonomikoa edo botere emozionala, adibidez.

Horren ondorioz, tratatu txarrak forma ezberdinak har ditzake: pertsona iraintzea edo umiliatzea; gutxietea eta mehatxatzea; jotzea; aspaldiko urteotan hainbat aldiz salatu diren eta polizia-etxeetan gertatu diren tortura sexistak; harreman sexualetara behartzea; egun osoan kontrolatzea; dirurik erabiltzen ez uztea... Modu



asko dago pertsona erasotzeko, guztiak ere mingarriak eta tratatu txarra jasotzen duenarentzat kaltegarriak oso. Ondorioak batzuetan fisikoak dira, baina beste batzuetan adimen-osasunean dute eragina. Tratatu txar psikologikoa, esate baterako, zailagoa da antzematen edo nabaritzen. Halakoak dira, besteak beste, umiliatzea, irainak, mehatxuak, isolamendua, biktimari sinestaraztea arazo guztien erruduna dela, irteerak kontrolatzea, iritzia kontuan ez hartzea eta besteen aurrean irrigarri bihurtzea, diruaren erabilera kontrolatzea eta murriztea... Nork bere burua ez estimatzea eta sufrimendua dakarte horiek guztiak.

EMAKUMEEN AURKAKO IDARKERIAREN EZAUGARRIAK

Emakumeen aurkako indarkeriak, askotan, ezaugarri jakin batzuk izaten ditu, modu jakin batean gertatzen da. Horieta-ko bat, garrantzitsua bezain kaltegarria, denboran luzatzea da. Alegia, gerta liteke, eta maiz gertatzen da, tratatu txarrak hasten direnetik bukatzen diren arte —arrazoia edozein dela ere—, denbora asko pasatzea. Sufrimenduz jositako denbora. Askotan fase jakin batzuk ere errepikatzen dira, ziklo moduan, baina gero eta bortitza: tentsio fasea, eraso fasea, eta damutze fasea. Damutze fase horiek gero eta murrizagoak dira, eta eraso faseak gero eta egonkorragoak. Denborak aurrera egin ahala errazagoa da emakumeak erasotzailea erasotzaile gisa identifikatzea, baina denbora luze horretan erasoak utzitako arrastoa eta zauria ere handiagoak izanen dira orduan.

Eta gerta liteke, eta gertatzen da, denbora tarte horretan emakumeak egoera horri bukaera emateko urrats jakinik ez ematea. Hori ulertzeko zenbait gauza kontuan hartu behar da: beldurra, mehatxuak, lotsa, mendekotasun ekonomikoa, laguntzarik eza, nora jo ez jakitea, norbere buruarengan ziurtasuna galtzea, egoera konponduko delako promesak eta itxaropena, autoestimurik eza... Horrelako faktore eta alderdiei begiratu behar zaie emakume bakoitzaren egoera aztertzen denean.

Emakumeen sufrimendua, bestalde, bikoiztu egiten da tartean seme-alabek daudenean. Alde batetik horien sufrimendua momentuan ikusteagatik, eta bestetik bizipen horrek, gerora, ekar diezaikeen ondorioengatik. Emakumeen nahiz seme-alaben sufrimendu hori zenbait sintomatan islatzen da: buruko mina, nerbio sistema asaldatua (agresibitatea, ezin egona...), eskola porrota, lagunik eza...

ZER EGIN?

Lehenago esan dugun moduan, nahiko genukeena baino errealtate hurbilagoa da emakumearen aurkako indarkeria. Gerta liteke, beraz, guri edo gure ondokoei eragitea, eta zerbait egin behar izatea.

Kasu partikularretan egin beharreko urratsak zein diren esan baino lehen, ordea, badago aipatu beharreko beste auzi garrantzitsu bat. Hain zuzen ere, agian kasu partikularrik ez dagoela. Alegia, gertatzen diren indarkeria kasuak testuinguru sozial batean gertatzen dira, eta gertatutakoaren azalpenaren zati handi bat gutxienez testuinguru horretan bilatu behar da. Eta, jakina, baita konponbidea ere. Egiturazko arazoak dira, eta egiturazko konponbidea behar dute. Eta, bide batez esanda, denon ardura da eraldaketa sakon hori aurrera eramatea.

Eta zer egin zerbait gertatzen denean? Zer egin bortxazko egoera zehatz baten aurrean? Bada, galdera beste era honetan planteatu genezake: Nora jo? Izan ere, kasu eta egoera bakoitzaren ondoan badaude eman litezkeen urrats batzuk, baita protokolo jakin batzuk ere, eta hainbat gauza egin liteke. Horiek baino lehen, ordea, lehendabiziko urratsa: nora jo behar dugun jakin behar dugu, urrats horiek guztiak zein diren jakiteko, eta bide horretan laguntza jasotzeko.

Eta Leitzari dagokionez, Gizarte Zerbitzua aipatu behar dugu atal honetan. Ja-

kina, pertsonaren ingurua hor dugu, eta normala eta komenigarria da familiaren, lagunen eta inguruko babesa eta laguntza edukitzea. Horri uko egin gabe, nolanahi ere, bestelako urrats batzuk egiteko eta bestelako bitarteko batzuk baliatzeko laguntza ere bila dezakegu, eta hor dugu Gizarte Zerbitzua.

Gizarte Zerbitzuak badu tratatu txarretarako edo indarkeriazko egoeretarako protokolo bat. Alegia, pertsona batek haiengana jotzen duenean, momentu horretan arretoa eta laguntza eskaintzeaz gainera, eman ditzakeen hurrengo urratsak zein diren esanzen diote, eta eskura dituen baliabideak zein diren ere azalduko diote, alderdi ezberdinetan: osasunari dagokionez, alderdi legalak, segurtasuna, aholkularitza juridikoa, salaketa, laguntza psikologi-

koa, emakumea laguntzeko zerbitzuak, harrera-zentroak...

Egoera ezberdinak egon litezke, eta denetan emanen diren urratsak ez dira berdinak izanen. Gauza asko egin liteke, eta egoera bakoitzaren arabera eta pertsonaren arabera aztertuko da eta erabakiko da zer egin. Aipatu beharra dago eman beharreko urrats guztietan emakumearen adostasunari garrantzi handia ematen zaiola, prozesuan berak nahi duen punturaino ailegatuz. Beraz, ahalegina egiten da argi uzteko pertsonak berak izan behar duela bere bizitzaren protagonista, baita aldaketaren sustatzailea ere. Baina, nolanahi ere, garrantzitsua da jakitea lehen une batean Gizarte Zerbitzura jo dezakegula laguntza eske. Herrian bertan dugun erakundea da, Leitzako udaletxean bertan kokatua (948510840), eta egoera zail horretan laguntza handia eman diezaguke.



Saioa Iraola Urkiola

leitzaldeko bilgune feministako kidea

■ **Emakumeen kontrako indarkeria egungo jendartearen dagoen arazo larrienetakoa da.**

Bai, horrelaxe da. Indarkeriak, Euskal Herrian eta mundu osoan zehar benetan arazo larria izaten jarraitzen duela esan behar dugu. Hedabideek egunero dituzte eraso ugari aipagai, nahiz eta eraso guztiek ez duten onarpen eta lanketa berdina jasotzen. 2010ean zoritxarrez dagoeneko 6 dira indarkeria patriarkalaren ondorioz eraildako emakumeak: Elena Cal (urtarrilean), Amelia Sanchez (otsaila), Isabel Velez (otsaila), Bonifacia Ruiz (apirila), Amelia Amaya (uztaila) eta Annie Froment (iraila). Horrez gain, urri hasieran Zarautzen hilda agertutako umearen kasua ere salatu nahi genuke, ez dugulako uste soilik arduragabekeriaren ondorio izan denik. Indarkeria sexista egiturazko arazo bat den heinean, hierarkian oinarritutako botere harremanak sortzen ditu izan emakume, haur edo beste edonor. Kasu honetan ere, instituzioak izandako jarrera salagarria dela deritzogu eta egun indarrean dauden legeak eta neurriak indarkeria patriarkalarekin amaitzeko nahikoak ez direla gogoratu nahiko nuke.



Gainera, Euskal Herrian, iazko urriaren 25etik desagertua dagoen Nora gasteiztarraren desagertzea ere salatzen dugu, eta instituzioei dagokien erantzukizuna bete dezaten eskatzen diegu. Horrez gain, salaketa berezia egin nahi dugu urte honetan zehar izan diren atxiloketetan hainbat euskal herritarrek jasan dituzten tortura sexistak direla eta.

■ **Nola baloratzen dituzue egun indarrean diren legeak eta martxan jarritako neurriak?**

Instituzioetatik zein komunikabideetatik indarkeria patriarkalaren inguruan jarduten dutenean, edo hau ekidite aldera hartutako neurrien arabera, emakumeok soilik biktimak gara. Honek, indarkeriaren izate osoa ezkatutzea dakar, eta horrez gain, emakumeok geure burua defendatzeko eta gure arteko elkartasun zubiak eraikitzeke dugun gaitasuna oztopatzen du. Nolabait, indarkeriarekin amaitzeko bestelako balore batzuetan oinarritutako harreman ereduak sortzeko, eraldaketa soziala ezinbestekoa da; beraz, neurriak, legeak azalekoak direla uste

«Indarkeriarekin amaitzeko bestelako balore batzuetan oinarritutako harreman ereduak sortzeko, eraldaketa soziala ezinbestekoa da»

dugu, hein batean, benetako aldaketa ahalbidetuko ez dutenak, alegia. Baina, asistentziari dagokionean, behin eraso gertatuta martxan jarritako zerbitzuak dira; gure iritziz horiek beharrezkoak dira, baina egoera hauek ekidite alde-
ra, formakuntzan inbertitu behar da.

■ **Bizi dugun krisi ekonomiko sozialak neurri eta prestazio anitzen murrizketa dakar, eraginik izango al du emakumeen kontrako indarkerian?**

Emakumeen kontrako indarkeriak ez du etenik, oraindik ere, esparru eta era anitzean emandako milaka eraso jasaten baititugu emakumeok. Baina egun bizi dugun krisi ekonomiko soziala ezaugarritzen duen prekarietateak arduratzen gaitu: langileena, zerbitzuena, balioena.... Krisi honen eraginez, langileok bizi dugun prekarietatea hazten doa eta zer esanik ez emakumeona. Baliabide ekonomikoen urritasunak, instituzioetatik bideratutako zerbitzu eta laguntzen murrizketak, etxeko ekonomian izandako aldaketak, eta beste hainbat faktorek emakumeen kontrako indarkeriaren hazkuntza ekar lezaketela uste dugu. Horrez gain, enplegu postuetan prekarietatearen eraginez, sortutako presioen, indibidualismoaren zein konpetentzien ondorioz, lan jazarpenek ere gora egin lezakete. Egoera benetan da larria, eta indarkeria egiturazkoa den heinean, egiturazko erantzunak ezinbestekoak dira.

■ **Zein da zuen planteamendua indarkeria sexistaren aurrean?**

Nazkatuak gaude indarkeria kasuak jazoera isolatu bezala tratatzeaz, gure askatasuna mugatzen duten jarrerak egunero jasane beharraz, instituzioek biktima soilak bagina bezala tratatzeaz, agintariak dituzten erantzukizun politikoak ez bete-
tzeaz, komunikabideek indarkeria morboa bultzatzeko erabiltzeaz... Beraz, indarkeriaren erroetara jo eta berarekin amaitzeko beharrezko den jokabide, jarrera eta tresna multzoak abian jartzea da gure asmoa: autodefentsa feministaren izatea abiaraztea. Emakumeok, geure bu-



rua defendatzeko dugun gaitasunean sinesten dugulako, eraso bakoitzaren egoerarekin konpromisoa eta elkartasuna agertzen dugulako, kalean, espazio publikoan aske ibili nahi dugulako, eta instituzioen itxurakeriaz eta martxan jarritako neurri urriez nekatu garelako hautatzen dugu autodefentsa feminista. Emakumeon arteko elkartasuna abiapuntu izanda, autodefentsa feministak bide lagun ditu: indarra, babesa, autoestimua, konfiantza, ziurtasuna eta interpelazioa. Beraz, geure burua indartu, ezagutu, ulertu, maitatu,

babestu behar dugu, ondoren, konfiantzaz eta ziurtasunez joka dezagun.

■ **Gai hau lantzeko herrian zein ekimen eta lanketa aurreikusten dituzue?**

Lanketa bi norabidetan planteatzen dugu; formakuntza-kontzientziazioa eta erantzuna. Batetik, txikitatik formakuntzak duen garrantziaz jabetuta, ikasturte honetan zehar institutuan zein herrian herriko gazteekin indarkeriaren gaia, hezikidetzaz lantzeko ekimenak izango dira. Horrez gain, abendu aldera aurreikusten dugu, herrian, Autodefentsa txoko bat egitea. Txoko hauek guretzat sortuak izango dira, gure emozio eta kezak konpartituz, emakumeon arteko estrategia komunak sortzeko espazio oso interesgarria dela uste dugu, eta herrian ere txoko hauen beharra dugula sentitzen dugu. Bestetik, erantzunari dagokionean, indarkeria kasuak kalean salatu behar ditugu, eskubide urraketa hauen aurrean ezin dugu beste aldera begiratu eta herriar ororen ardura ere bada. Azaldu nahi nuke, bide batez, Euskal Herrian emakume bat erailtzen dutenean, prentsan agertu eta 24 ordura elkarretaratzeak egiten direla Euskal Herriko Mundu Martxako Plataforman adostutako protokoloaren arabera, eta Leitzaan ere egiten dira. Beraz, erasoaren aurrean ezin dugu isilik geratu, kalera atera eta salatu egin behar ditugu.

«Indarkeriaren erroetara jo eta berarekin amaitzeko beharrezko den jokabide, jarrera eta tresna multzoak abian jartzea da gure asmoa: autodefentsa feministaren izatea abiaraztea»



Hizkuntza

Zerk osatzen du herri bateko paisaia? Inguruko mendiek, adibidez. Edo basoek, alorrek, baratzeak... Baita auzoek, kaleek eta etxeek ere, edo beste-lako eraikinek: plazak, parkeak, kirol-guneak... Horiek denak ikusi egiten ditugu, eta herriaren irudia osatzen dugu.

Eta horiekin batera, badaukagu herriaren paisaia osatzen duen beste elementu bat: hizkuntza. Edo hizkuntzak. Hizkuntzaren presentzia ere ikusi egiten da, etxeak eta balkoietakorenak bezala, eta horiek osatzen du hizkuntza paisaia. Horretaz ariko gara erreportaje honetan.

BEGIETATIK SARTZEN ZAIGUNAREN GARRANTZIA

Eman dezagun gurea ez den herri batera joan garela. Iristen garenean, deus entzun baino lehen, ziur asko aurrena ikusi egiten dugu: erroteruak, kaleko kartelak, oharrak, publizitatea... Horrek ematen digu lehendabiziko inpresioa, eta "kokatu" egiten gaitu. Nolako herria den, hizkuntzari dagokionez. Eta inpresio horrek, neurri batean behintzat, hizkuntza batera edo bestera bultzatzen gaitzake. Gure jarrera pertsonala ere garrantzitsua da, jakina, erabakigarria. Baina inguruak ere, begietatik sartzen zaigun horrek, gure hizkuntza portaeran eragin dezake, eta hizkuntza batera edo bestera bultzatzen gaitzake.

Eta gurea ez den herri batean bezalaxe, gurean ere hizkuntza paisaiak gure hizkuntza jokabidean eragin dezake. Oso zaila izanzen litzateke zer neurritan eragiten duen neurtzea, baina herriko paisaia linguistikoa euskalduna izateak, deus egitekotan, euskararen erabilaren alde egingen du kontra baino gehiago, zalantzarik gabe. Giro sozial bat sortzen du, nolabait esateko, edo euskararen aldeko giro bat indartzen du, euskararen erabilera lagundu dezakeena.

Hori guztia kontuan izanda, pentsa dezakegu herrian daukagun hizkuntza paisaia ere garrantzitsua dela: euskaraz bizitzaren laguntzen digulako neurri batean; euskarari prestigioa ematen diolako; euskara praktikoa eta beharrezkoa dela erakusten duelako; xuabe-xuabe euskarara bultzatzen duelako; kanpotik heldu dena ere euskarara bultzatzen duelako...

Eta hizkuntza paisaiak baduen guztienez tamaina bateko garrantzia, udaltik eta euskara zerbitzutik aspaldiko urtetan arreta jarri zaio, eta arlo horretan eragiteko ahalegina ere egin izan da: erroteruak euskaratzeko kanpainak egin eta laguntzak eman dira; Udalak berak bere erroterulazioa eta kartelak euskaraz jarri ditu; hizkuntza-paisaiaren segimendua egin da eta gomendio, ohar eta proposamen asko egin da; Nafarroako Gobernuari eta

paisaia

beste hainbat erakunderi ere erroteruak eta ageriko elementuak euskaraz jartzeko askotan eskatu zaie...

Egindako ahalegin horren emaitza da Leitzan gaur egun dugun hizkuntza paisaia. Azken urteotan, zalantza handirik gabe esan dezakegu, asko aldatu eta hobetu da. Hobetu eta zuzendu litezke hainbat gauza, jakina, baina lasai esan liteke Leitzara etortzen denak nabaritutako duela hau herri euskalduna dela, hitzik entzun gabe ere. Nahikoa izanzen du hizkuntza paisaia-ri arreta pixka bat jartzea.

Esan bezala, gaiari nolabaiteko segimendua egin zaio zenbait urtetan. Horren ondorioz, baditugu zenbait datu, eta horietako batzuk emanen ditugu jarraian. Datuok, oro har, erakusten digute hizkuntza paisaiari dagokionez Leitzan nahikoa panorama euskalduna daukagula. Eta gaur egun arraroa gertatuko litzateke herriko elkarte batek, esaterako, zerbait antolatu eta kartel bat erdara hutsean egitea. Gaur egun, normal-normal, euskaraz egiten dira, edo batzuetan ele bietan. Baina nekez erdara hutsez. Eta kaletik joanez gero, dendetako erroteruak, kartelak,



udalaren errotuluak... gehienak euskaraz daudela ikusiko dugu.

Hori, ordea, ez da beti horrela izan. Duela 40 urte ez zen, inondik ere, horrela. Ezta duela 20 urte ere. Bilkara bat egon da, lan bat egin da, jendeak ere erabaki bat hartu du, eta pixkanaka gaurko egoerara iritsi gara. Aldaketak pixkanaka gertatzen direnez, agian ez gara ongi ohartzen, eta aurreko egoera "ahaztu" egin zaigu, baina ez dago zalantzarik asko aldatu dela.

Eman ditzagun, esan bezala, zenbait datu, aipatutakoaren lagin gisa (ikus taulan).

ONDORIOAK

Ikuspegi euskaltzale batetik begiratura, pozik egon gaitezkeela uste dugu. Leitzan azken urteotan hizkuntza paisaia asko euskalduntzea lortu delako, eta horrek norberaren hizkuntzarekiko estimua eta balorazioa erakusten duelako. Urrats handia egin da.

Oraindik badaude hutsuneak (oso ohikoa da obretako errotuluena, esate baterako), eta egoera hobetu daiteke. Han edo hemen ikusten ditugun erdara hutsezko errotulu, kartel, ohar edo iragarkiak gero eta gutxiago izan daitezen ahalegina egin beharko dugu.

Hizkuntza paisaiatzat aritu garenean kalekoaz aritu gara, baina etxekoa, lantokikoa, elkarte barrukoa ere izan daiteke... Hor ere denetik dugu, eta jendea animatu nahi dugu esparru horietan ere urratsak egitera. Askotan uste baino errazagoa da gure inguruko paisaia hori aldatzea, eta epe luzean uste baino ondorio handiagoa izan dezake. Euskararen aldeko beste aletxo bat izan liteke, gutako edonork aisa eman dezakeena.

HERRIKO ESTABLEZIMENDUETAKO ERROTULUAK: DENDAK, JATETXEA, OSTATUAK, TAILERRAK, ENPRESAK...

2009. urtean egin zen neurketa, eta emaitza honakoa da:

	Euskaraz	Bietan	Gaztelaniaz	Besterik
Ehunekoa	% 59	% 19	% 10	% 12
Kopurua	40	13	7	8

Herriko errotuluei dagokionez, beraz, 10etik 6 euskaraz dago eta 10etik 2 euskaraz nahiz erdaraz. % 10 besterik ez da gaztelania hutsez dagoena. "Besterik" horretan biltzen direnak, normalean, izen propioak dira, eta ezin esan hizkuntza batean edo bestean daudenik.

KALEKO KARTELAK

Bi urteko neurketak aipatuko ditugu. 2009. eta 2010. urtekoak hain zuzen ere. Klean ikusten diren kartelak neurtu ditugu kasu honetan, era guztietakoak: kontzertuak, kirol-ikuskizunak, mobilizazioak, oharak, hitzaldiak, ikastaroak, batzarrak, publizitate komertziala... Honatx emaitzak:

2009	Euskaraz	Bietan	Gaztelaniaz
Ehunekoa	% 83,8	% 8,1	% 8,1
Kopurua	31	3	3

2010	Euskaraz	Bietan	Gaztelaniaz
Ehunekoa	% 81,82	% 9,09	% 9,09
Kopurua	18	2	2

UDALETXEKO IRAGARKI TAULA

Karrapen kokatuta dago Udalaren iragarki-taula. Bertan dauden dokumentuen hizkuntza ere aztertu dugu 2009. eta 2010. urteetan, eta hementxe daude emaitzak. Errotulazioan eta karteletan baino emaitza apalagoak ikusten ditugu hemen: erdia da euskaraz dagoena, eta % 35-45 artean gaztelania hutsez dagoena. Esan behar da, nolahi ere, erdaraz dauden dokumentuen % 100 Leitzara kanpotik etorritakoak direla, hemendik kanpora kokatuta dauden administrazioetatik iritsitakoak. Honatx emaitzak:

2009	Euskaraz	Bietan	Gaztelaniaz
Ehunekoa	% 51,4	% 13,5	% 35,1
Kopurua	19	5	13

2010	Euskaraz	Bietan	Gaztelaniaz
Ehunekoa	% 48,9	% 8,9	% 42,2
Kopurua	22	4	19



Goizueta: goi+zubi+eta

Gure hizkuntzaren izenaz

Euskara da, ongi aski dakizun bezala, geure hizkuntzaren izena. Baina euskalkiaren arabera, eta herri batek bestera mugituz gero, euskara esateko modu ezberdin ugari aurkituko dituzu: euskara, edo euskera, edo eskuara, üskara, eskuera, euskiera, uskera... Antzekoak denak, bai, baina bakoitza bere ukitu-txoarekin.

Euskara baturako horietako bat aukeratu da, *euskara* hain zuzen, eta hori da, nolabait esateko, hizkuntzaren forma “ofiziala” euskaraz ari garenean. Gaztelaniaz, berriaz, “euskera” da izen ofiziala. Horrek ez du esan nahi, jakina, besteak desegokiak direnik, edo inoiz erabili behar ez direnik.

Forma bat edo beste aukeratuta, denok erabiltzen dugu normal-normal gure hiz-

kuntzaren izena. Baina ba al dakigu nondik datorren izen hori? Galdetu al diozu inoiz zeure buruari? Hitzen jatorria bilatzea eta aurkitzea oso ariketa interesgarria izan daiteke, nahiz eta batzuetan oso zaila izan, edo hainbatetan ezinezkoa.

“Goizueta” hitza edo izenaren jatorria, esate baterako, nahikoa erraz asma daiteke: “goi-zubi-eta”. Logikak eta intuizioak eraman gaitzake horretara, bestelako datuen beharrik izan gabe, baina kasu honetan gainera dokumentu zaharrak ere badi-tugu lagungarri: “goizubieta”, izan ere, idatzita agertzen da paper zaharretan. Beste batzuetan, ordea, askoz zailagoa da; adibidez “euskara” hitzaren kasuan.

Zaila izanen da, baina bada galdera horri erantzuna bilatzen saiatu den jendea.

Larri Trask hizkuntzalariak, “History of Basque” liburuan, euskara hitzaren jatorriaz egin diren hipotesi batzuk aipatzen ditu, eta guk horien berri ematen dizuegu:

AKITANIAKO TRIBUAK

“Euskara” izenaren jatorriaren inguruan onarpen oso zabala lortu duen hipotesi batek gure hizkuntzaren izena Akitaniako tribu batekin, *ausci*-tarren tribuarekin lotzen du. Akitania gaur egungo Frantziako

hegoaldeko inguru zabal bat da, Euskal Herriko iparralde baina askoz zabala goa. Han bizi ziren *ausci* tribukoak, eta gaur egun Frantzia kokatuta dagoen Auch hiria horren aztarna dugu, nonbait.

**ausk*- izan liteke, beraz, garai batean euskaldunek —edo euskaldunetako batzuek— beren burua izendatzeko erabiltzen zuten izena. *au*-tik *eu*-rako bilakaera nahikoa arrunta omen da euskaraz, askotan gertatu den soinu aldaketa. Kasu honetan ere hala gertatu balitz, **ausk*-etik *eusk*- izanen genuke.

Bestalde, -(k)ara edo -(k)era atzizkia ere nahikoa ezagun egiten zaigu, ezta? “*Modua, era*” adierazteko erabiltzen dugu: ibilera, janzkera, jarrera, jokaera... Aipatutako bi osagai horien elkarketak (eusk- + (k)era) “euskara” izenera eramaten gaitu.

Ez dago hala izan denik frogatzeko modurik, baina nahikoa sinesgarria izan liteke.


BESTELAKO HIPOTESI BAT

Azaldu berri dugun hipotesi horren ondoren, ordea, Larri Traskek bere liburuan oso bestelako proposamen baten berri ematen du. Alfonso Irigoienek proposamen bat da, 1977 eta 1990eko bi artikulutan jasoa. Laburrean, urratsez urrats, eta xehetasun teknikoak oso azaletik jasota, hauxe da bere proposamena:

Badago euskarazko hitz edo erro zahar bat, “*esan*” esanahia duena. Erro hori -io- da, eta honelako adibideetan ikus dezakegu: “zer diozu?”, edo bizkaieraz “zer diñozu?”. *Dio, diost, diñost, diñau*st formak dira erro horrekin lotzen direnak. Ziur gaude behin baino gehiagotan entzun dituzula, eta akaso baita erabili ere.

Forma horiek ikusita, Irigoienek ustez aipatu dugun -io- erro hori baino zaharra goa izanen zen **inau*(t)s erroa. Zer azaldu behar da proposamen hori zuzitzeko? Alde batetik o bokala *au*-tik datorrela, eta bestetik bizkaieraz ikusten dugun -ñ- horren atzean lehenagoko -n- bat dagoela. Ez da burugabekeria bat, gisakoak maiz jaso baitira euskaraz. **inau*(t)s erroa justifikatua egon liteke, beraz.

Aurrera egiten du Irigoienek bere ideiarekin, eta **inau*(t)s proposatzen du,



“*esan*” aditzaren aspaldiko partizipiotzat. Euskaraz bazuen, beraz, **enautsi* aditza, “*esan*” esateko.

Iritsi gara, horrela *esan* baliteke, ideia- ren lehendabiziko geltokira, badugu aditz-forma baten proposamena. Horren gainean, Irigoienek ohar harrigarri bat dakar: Garibayren 1571ko *Compendio Historiale*an, bi aldiz aipatzen da *enusquera* euskaldunon hizkuntza izendatzeko.

Aipamen horiek sarritan akats edo xelebrekeriatzat hartu izan diren arren, Irigoienek planteamendua da hizkuntzaren forma zaharra horixe zela: **enuskara* edo **enuskera*, alegia. Eta nondik sortu zen, bada? Lehen aipatu dugun **inau*(t)s aditzetik, hain zuzen ere, -(k)ara edo (k)era atzizkia erantsita. Lehendabiziko hipotesian *eusk* + (k)era proposatzen zen bezalaxe, oraingoan **inau*(t)s + (k)era proposatzen da. Zer *esan* nahiko luke, hipotesia onartuz gero, *euskara* hitzak? Bada, “*esateko era*” edo, agian, “*hitz egiteko era*”.

Tira, dirudienek hipotesiak ez du aparteko arrakastarik izan, eta bilatzen hasiz gero, ziur asko aitzakiaren bat bila dakioke. Baina, beste alde batetik, proposatzen dituen urrats guztiak zentzuzkoak dira, eta ez dago erabat ezinezkoa den ideiarik.

Bistakoa da hizkuntzaren inguruko kontuak askotan oso konplexuak direla, eta oso zaila dela gauzak ziur esatea ere.

Zailtasun horien gainetik, nolana ere, ondorio sendo eta seguru samarrak ateratzeko modua ere bada, behar adinako zorrotzasun metodologikoa tartean izan bada behintzat. Eta, zer *esan*ik ez, pazientzia handiko lana eginez gero. Dena ez da asmakizun hutsa, beraz, eta hipotesiak zerbaitetan oinarrituta egiten dira: logika, hizkuntzaren ezaugarriak eta lege fonetikoak, antzeko kasuak... Normalean norbaitek proposamena egiten du, eta ondoren etorriko da jendea aizkorarekin. Hipotesia zenbat eta hobeki arrazoitu eta argudiatu, orduan eta errazagoa izanen da gainerakoek onartzea.

Euskarazko hitzen gainean proposamen eta hipotesi asko egin dira. Batzuk oso-oso arinak eta funsgabeak, nahiz eta politak eta erromantikoak izan, eta beste batzuk oso-oso landuak eta argudiatuak. Batzuk metodo zientifikoetan oinarrituta, eta beste batzuk intuizio hutsean oinarrituta. Denak izan litezke egiazko, baina “*zientifikoak*” direnak sinesgarriagoak izaten dira, gutxienez “*frogak*” aurkezten saiatzen direlako, eta esaten dituztenak kritikatu eta gezurtatzeko bidea ematen duelako.

Hemen euskara hitzaren inguruko pare bat hipotesi erakutsi dizkizugu. Horiek baino egokiagorik bururatzen bazaizu, Marmariren hurrengo zenbakian zure ideari tokia emanen diogu. Animo!

Euskal mitologiako hitz bitxi baten inguruko gogoeta

Jarraian duzuen testu hau leitzar bateg Marmari aldizkarira bidalitako kolaborazio bat da, 20. zenbakiko “maite duzun hitz hori” artikulua era-gindako gogoeta baten ondorioa.

INGURUKO HERRIETAKO EUSKARA EDERRA:

Nahiz eta elkar ukituz egon hiru herri hauek, Areso-Leitza-Ezkurra, badira hitzak gauza berari hitz ezberdinekin deriztatenak. Adibidez:

Axuri-bildots-arkume.
Ixtor (irastor)-garoa-iratzea.

Seguru hiru herri hauetan horrelako hirukiak gehiago badirela!!!

Axuri tratuan edo auzo lanetan askotan aurkitzen ziren egun guztian elkarrekin hiru herrietakoak, baina bakoitza bere herriko hitzarekin etxeratzen zen.

Saldiastar batekin afaltzen nengoela, “ORTOTS” kontua aipatu zidan, eta nik ez jakin zer zen. Galdera egin nion eta berak esan zidan Leitza trumoi esaten diogula.

- Arraioa! Hori izan daiteke nik euskaraz aditu dudana hitzik bitxiene, esan nion.

- Zergatik bada? Galdetu zidan.

- Nik gatzelerara literalki itzuli behar banu “**bramido de dios**” edo zerbait horrelako esan beharko nuke.

EUSKAL MITOLOGIA ETA BESTE KULTUREN ERAGINAK:

Geroztik trumoi leherketa bereziren bat sumatzean, inguru guztiari dar-dar egina-razten dion horietako bat, gure arbasoek

zer ikara pasatzen ote zuten etortzen zait burura, hainbestearino haserretua zegoen jaungoikoaren orroa entzutean, bere tximisten kiskaltzeak eta harri eta kazkarabar jasak ondasunak suntsitzen ikustean.

Zer egiten ote zuten jaungoikoaren haserre hura baretzeko edo saihesteko? Gure garaietaraino iritsi dira haren aztarna batzuk, orain esango ditudanak.

Gutako askok, zaharrenak noski, **konjurio** deritzan erritoak ikusi izan ditugu, kristau legez kanpokoak batzuetan. Talianen lege (“ojo por ojo y diente por diente”) itxurakoak zenbait alditan, zere-monía gidaria oihuka edo deiadarka, lehertu behar bazuen, non ez bota eta non bota esaten saiatzen zen.

Baita Santa Barbarari (“nos acordamos de Ella sólo cuando truena”), kuzkur belaunikaturik, kandelak biztu, San Juanetan bedeinkatutako belarrari su eman, eta fin aski errezatu ere. Batzuetan bazi-rudien entzun zigula, baino gehienetan alferrik. “Ala beharko zuen. Jaungoikoaren nahia bete bedi. Jaunaren nahia hori baten, Amen”.

Fatalismo hura nahiko lasai hartzen zen (goi mailako joko galtzaile batek bezala) baina ez zen **pesimismo-ezkortasuna** izaten (akaso konformismoa). Gogorazten dit gure garai hartako txiro eta ijitoak deus gutxi suizidatzen zirela. Oraingo ijito aberatsak akaso bai?

Haiek, euskaldunek bezala, euren kultura zuten eta horri esker haiek eta guk

zailtasunak gainditu genituen. Gure garai haietan nazio aberatsetakoak ziren gehien suizidatzen zirenak, Herbeheretakoak (Países Bajos) adibidez. Gaur egun badirudi denak aberastu garela eta baliteke gaur egun horrelako pesimismo-ez-kortasunetan edozein nazio aberatsen pare edo goitik egon gintezkeela, oparoal-dietan ez bada ere.


Irakurri berria dut: “Tras la oleada de suicidios en France Télécom, dos mil de sus trabajadores en Francia están en tratamiento para combatir el estrés, la ansiedad y la depresión por presentar riesgo para su vida”.

ZORIGAITZA EDO DRAMA

Edozein baserritan, hamar edo hamabi laguneko familiak nonahi, momentu bate-tik bestera zer janik gabe gelditu zitezke-en urte guztirako. Arto, banabar, gaztain loreak, fruitu eta barazki guztiak minutu gutxitan suntsiturik. Zerua goian, lur hutsa behean eta negarra tartean. Ez zen inongo laguntza publikorik. Oraindik erretzen diren baserriek laguntzen zaien bezala, harri edo kazkarabar jasa izan gabe-ko auzoak zerbait laguntzen saiatzen ziren, ahal zutenarekin. Ez noski behar zen adina.

GOGOETAK

Lehenago esan dudana Saldiastarrarekin egindako afariaren ondoren, Elhuyar Hiztegi Entziklopedikora jo nuen eta



besteak beste, harira datozen hitz aipagarri hauek begiztatu nituen:

Orotots: Ostots. Trumioia. Tximist ondo-rengo hotsa edo orroa.

Hots: Soinu-uhinek sortarazten duten sentsazioa. Ate-hotsa, txin-txin diruaren hotsa, txilinari hots eragin.

Ortz = Ost = Urtzi: "Euskal mitologian Jainkoari ematen zaion izena. Antzina gurtua izan zen; zerua edo zeruko argiaren pertsonifikazioa zen".

Ortzadar = ostadar: Arco iris. "Goiz ortzadar, arrats iturri".

Ortze = Ortzi:

1.- Zeru-sabaia, zeru izartsua, izarrartea. *Ortziko izarrak.*

2.- (Ipar) Ekaitza; oinaztarria-tximista; **ostotsa.** *Ortzi erori.*

3.- Ik. **Urtzi.**

Ortzikara: adb. (L). Zeruaz mintzatuz, ekaitza dakarten hodei beltzez. (Ortzikara da eguna).

Ortzegun = ostegun.

Ortzirale = ostiral.

Ortzondo = egunsentia: Eguna argitzen hasten den unea. ("Egunsentia eguzkiaren aurretik datorren bezala").

Ortzkarbi = oskarbi:

1.- Zeruaz mintzatuz, garbi, hodeirik gabe. *Arrats gorri, bihar oskarbi (*Leitzan: arrats gorri bihar egueldi).*

2.- Zeru hodeirik gabe dagoen egoera. *Sortaldetik izar berri bat agertu zen oskarbi beltzean dizdikza*"). Oskarbi uneak.

JOXE

Aitor Larrañaga
ilustratzaileak
Egunkariak ateratako
Euskal Mitologia bilduma-
rako Urtzi inguruan
egindako ilustrazioa.

zer diozu?

eta zuk,

Goretti Calderon



Busti zaitez, mesedez, noiz hasten da eta noiz bukatzen gaztaroa? Hori bakoitzen araberakoa izanen da, ez? Gaztaroa gaztea sentitzen zaneko aroa dela esanen nuke nik... Ni gaztaroan nao!

Ibili al zaitezke gau oso batean parrandan dantzarik egin gabe? Musike badao ez betire! Hoi izatekotan Gipuzku alden, beño hemen...jaja. Musike badau, nahi gabe bada re, gorputze moittu itten da.

Eta saiatu behar da ongi dantzatzan, edo nahikoa al da gustura egitea? Gustora ittea ta gustoko jendekin. Gañontzekoak ez do axola. Hobekixeo o okerrago, parrandan denak onartuk die!

Musika hutsak aldatu al dezake zure aldar-tea eta animoa? Aldarte aldatu beño, aitzen doten musike nere aldartera egokitzen da. Alai banao musike moittue aitzet, ta tristexeo naonen lasaie.

Irla batetik ekarriko zenituzkeen hiru gauza: Lasaitasune, itsasoa eta bertako altxorra!

Non jarriko zenuke, jartzekotan, semafororen bat Leitzan? Plazako sarrera guzitan, ta beti gorrin utziko nittuzke, hola daukeun herriko plazaz gozatzeko.

Oroitzen al zara noiz aitortu zenuen azkeneko aldiz oker zinela, ez zenuela arrazoirik? Ba ez... Egie esan, nahiko kaskagorra naiz, ta kosta itten zait oker nagoala aitortzea. Batzutan ittet, eh? Beño kostata.

Gauzak ongi egiteagatik zoriontzeko ohiturarik ba al duzu? Tarteka bai, beño ez behar bestetan. Orokorren, gehiotan zoriondu behar giñuke! Gezurre ematen bado re dohañekoa da...

Telebistaren alderdi onak eta txarrak: Onak: oso eskura daukeu ta informazioa oso bisuala da.

Txarrak: programazioa negargarrie da ta pertsonak manipulatzeko dauken gaitasune ikargarrie da.

Nola ikasten duzu munduan zer gertatzen ari den? Edo ez zaizu axola? Informazioan menden bizi ga, ta informatu beharko! Normalen prentsa digitala eunero irakurtzen dot, ta irratie re bidelagun izaten dot goize-ro.

Zer du Leitza ondoko gainerako herriek ez dutena? Zerbitzu ugari (Bigarren hezkuntza, osasun etxea...), giroa (beti bada zerbatte!), aisialdirako eskaintza zabala... eta kuartela.

Zer dute ondoko gainerako herriek Leitza ez duena? Batez e bi gauze: kotxe gutxio da-biltze ta bizimodue lasaiegota da.

Iker Urkiola

Busti zaitez, mesedez, noiz hasten da eta noiz bukatzen gaztaroa? Hasi 15 urte inguruan hasten da eta bat gazte sentitzen den arte irauten dola uste dot.

Ibili al zaitezke gau oso batean parrandan dantzarik egin gabe? Neretzat betire oso zalle da. Izaten die momentuk nekatuxegoa zaudela eta pixkoat deskantsatzen dozola biño gañantzen dantzan ibiltzen naiz.

Eta saiatu behar da ongi dantzatzan, edo nahikoa al da gustura egitea? Tokin eta momentun arabera. Parrandan zabiltenen gustora ibiltzea nahiko izaten da biño dantza talde baten zaudenen gustora ittez gain ongi dantzatzan saiatu beharra za.

Musika hutsak aldatu al dezake zure aldar-tea eta animoa? Nik uste eragin haundie dola. Triste zauden momentutan musika bixi eta alai batek uste dot pertsona ebai alaiago sentitzea itten dola. Eta musika lasai batek pertsona lasaitu itten dola. Izugarrizko eragine dola uste dot.

Irla batetik ekarriko zenituzkeen hiru gauza: Eguraldi ona, kutsadura eza eta diru pixkoat izanezkeo oixe bera.

Non jarriko zenuke, jartzekotan, semafororen bat Leitzan? Leku askotan jarriko nittuzke jendea oso azkar ibiltzen baita herritik kotxez, biño bat bakarra jarri behar bada eskola ingurrun jarriko nuke. Badie bi semaforo biño ez-tue deustako balio jendeke ezpaitie kasoik itten.

Oroitzen al zara noiz aitortu zenuen azkeneko aldiz oker zinela, ez zenuela arrazoirik? Galdera hori erantzun aurretik klaseko bateri arrazobea eman behar izan diot arrazobeik enulako.

Gauzak ongi egiteagatik zoriontzeko ohiturarik ba al duzu? Gehienetan bai. Eta zoriontzen ez-badot ongi in dola esan, biño zerbatte bai.

Telebistaren alderdi onak eta txarrak: Ona informazio asko ematen dola eta txarra bakoitzek komeni zaion modun ematen dela informazioa hoi.

Nola ikasten duzu munduan zer gertatzen ari den? Edo ez zaizu axola? Aitortu behar dot ni oso telebista zalea naizela eta normalen telebista bidez jakittetela ze pasten den mundun biño tarteka egunkariere irakurtzet.

Zer du Leitza ondoko gainerako herriek ez dutena? Gazteek aisialdirako aukera gehio dittuela eta inguruko herritan biño mugimendu gehio eoten dela.

Zer dute ondoko gainerako herriek Leitza ez duena? Iguruko herriek uste dot Leitza biño lasaitasun haundigota duela biño ni Leitza-kin geldittuko nitzeke.

